



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

31 - 33 / 000000000004

NOMBRE CONTRIBUYENTE 000004

CL Calle 111 A I 22 DCH

20000 Municipio

GIPUZKOA

Zergadun hori:

Errenta aitortpenaren tramiteak errazteko, Gipuzkoako Foru Ogasunak 200.000 autolikidazio proposamen baino gehiago prestatu ditu, eta haien artean zurea.

Proposamenaren emaitza **ORDAINTZEKOA** da. Ordaintzea errazagoa izan dakizun, zatika kobratuko dizugu atzealdean ageri den kontu korrontetik: %60 2014ko ekainaren 30ean, eta gainerako %40a 2014ko azaroaren 10ean. Nahiago baduzu, dena ekainaren 30ean ordaintzea ere aukera dezakezu.

Proposamenarekin ados bazaude, **2014ko apirilaren 7tik aurrera** onartu dezakezu, dela **902 100 040 telefonora** deituz dela www.gipuzkoa.net/ogasuna/errenta web helbidea erabiliz. Bi kasuotan, datu hauek eskatuko zaizkizu: NA eta gutun honetako beheko laukian ageri den gakoa.

Proposamenarekin ados ez bazaude:

- * eta hori gertatzen bada kapital higiezinaren etekinetan (etxebizitzaren errentamenduetan) edo kuota sindikalen, dohaintzen edo errentan hartutako ohiko etxebizitzaren kenkarietan aldeak daudelako, proposamena onartu dezakezu kontzeptu horiek telefonoz edo internet bidez aldatu eta gero.
- * beste edozein kasutan, ez onartu proposamena, eta aurkeztu aitortpena modalitate hauetako bat erabiliz: mekanizatua, lortu duzun errentaren batek aukera hori eragozten ez badizu, edo internet.

Adeitasunez,

Helena Franco Ibarzabal
Ogasuneko eta Finantzetako diputatua

Proposamenari adostasuna emateko **(2014ko apirilaren 7tik ekainaren 25era bitartean)**

* Telefonoz (astelehenetik ostiralera, 08:00etatik - 20:00etara): **902 100 040**

* Internet bidez www.gipuzkoa.net/ogasuna/errenta

Proposamena onartzeko eskatuko diren datuak:

* Kodea: **328511**

* NA(letrarik gabe)

00020200



AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

109
2013

Zergaduna: **NOMBRE CONTRIBUYENTE 000004**
 Tributazio mota: **BANAKA** Ezkontza erregimenea: **Irabazpidezkoa**
 Helbidea: **CL Calle** **111 A Municipio**
 Kontrola eta Artxiboa: **2014-109-9901209402**
 Zertarako erabili Kuota osoaren %0,7: **Interes sozial**

Ezkontidea / Izatezko bikotea : **NOMBRE CONYUGE**

Lanaren etekinak Kapital higiezinaren etekinak Kapital higikorren etekinak Jarduera ekonomikoen etekinak Errenten egozpena Ondare irabaziak (eskualdaketak ez)	28.953,84	Kenkari Orokorra Ondorengo ahaideak Seme-alaben manten. urteko ordaink. Aurreko ahaideak Ezgaitsuak Mendeko pertsonak	1.375,00
Osagai positiboak, guztira	28.953,84	65 urtetik gorako adina Ez gaituen ondareari egindako ekarpenak Ohiko etxebizitza errentan hartzea Ohiko etxebizitza erostea	386,58
Gizarte Segurantza, funtzionarioen mutualitateak Kargu politikoen ekarpenak Lanaren hobaria Errentan emandako higiezinaren gastuak Kapital higikorren etekin negatiboak Kapital higikorren gastuak Jarduera ekonomikoen etekin negatibo integragarria Ondarearen zenbateko negatiboaren konpentsazioa %25eko mugarekin	1.834,92 3.000,00	Jardueretan inbertitzea Langileek enpresan parte hartzea Enpresa aurrezki kontuan inbertitzea Dohaintzak (%10) Lehentasuneko jarduerak Nazioarteko ezarpen bikoitza Aseguru kontratuen konpentsazioa Sindikatuak eta Alderdi politikoak Beste kenkari batzuk	21,60
Osagai negatiboak, guztira	4.834,92		
Au.ko.ekit.ko OEO ondare galeren konpentsazioa			
OINARRI EZARGARRI OROKORRA	24.118,92	Kenkariak guztira	1.783,18
Murrizpenak: batera aitortzeagatik Pentsio konpentsagarriak ordaintzeagatik BGAEei, etab. Ekarpeneak egiteagatik...	3.115,68	KUOTA LIKIDOA	9.360,34
Au.ko.ekit.etako OLO negatiboaren konpentsazioa		Lana Kapital higiezina Kapital higikorra Jarduera ekonomikoak Inbertsio fondoak Sariak IETak eta EABak	3.756,48 5.575,17
OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA	21.003,24	Konturako ordainketak guztira	9.331,65
Kapital higiezinaren etekinak Kapital higiezinaren gastuak Kapital higikorren etekin garbia Au.ko ekit.etako kapital etekin negatiboaren konpen. Ondare irabaziak (eskualdaketak) Au.ko ekit.etako ondare galeren konpentsazioa	25.048,47	Doiketa positiboak Diferentzia Aurreko likidazioen emaitza	28,69
Pents. Konpentsagarriengatik murriztutakoaren soberakina			
AURREZPENAREN OINARRI LIKIDAGARRIA	25.048,47		
OINARRI LIKIDAGARRIA	46.051,71	ITZULTZEA ORDAINTZEA	28,69
Kuota osoa, orokorra Kuota osoa, aurrezpenarena Atxikitako elementuen ondare eta galeren doiketa	5.111,41 6.032,11		
KUOTA OSOA GUZTIRA	11.143,52		
Aurtengo aitortzean sartzen ez diren errenta negatiboak hurrengo ekitaldian Konpentsatuko dira indarrean dagoen araudiaren arabera.		Ordaindu behar den zenbatekoa kontu honetan kargatuko da 1111-2222-3-4-0000000000 entitatea: BANCO	

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA

Proposamenari adostasuna emateko (2014ko apirilaren 7tik ekainaren 25era bitartean)	Proposamena onartzeko eskatuko diren datuak:
* Telefonoz (astelehenetik ostiralera, 08:00etatik - 20:00etara): 902 100 040	* Kodea: 328511
* Internet bidez www.gipuzkoa.net/ogasuna/errenta	* NA(letrarik gabe)

PROPOSAMENAREN XEHETASUNA

Zergaduna: NOMBRE CONTRIBUYENTE 000004		Kontrol eta artxiboa: 9901209402 000004		
Kontzeptua	Jasotzailea	Ordaintzailearen identifikazioa	Zenbatekoa	Atxikipenak
Lana	Aitortzailea	PAGADOR	20.640,00	2.683,20
Lana	Aitortzailea	PAGADOR	1.376,19	0,00
Lana	Aitortzailea	PAGADOR	8.256,00	1.073,28
Lana	Aitortzailea	PAGADOR	458,73	0,00
Murrizpena	Aitortzailea	PAGADOR	3.000,00	0,00
Murrizpena	Aitortzailea	PAGADOR	57,84	0,00
Lana eta murrizpena	Aitortzailea	PAGADOR	57,84	0,00
Dibidenduak	Ezkontidea	PAGADOR	10.739,91	2.255,38
Kontuen interesak	Aitortzailea	PAGADOR	639,81	134,36
Kontuen interesak	Aitortzailea	PAGADOR	0,37	0,07
Kontuen interesak	Ezkontidea	PAGADOR	639,81	134,36
Kontuen interesak	Ezkontidea	PAGADOR	1,48	0,32
Kontuen interesak	Ezkontidea	PAGADOR	0,35	0,06
Bestelako interesak	Ezkontidea	PAGADOR	41.075,26	8.625,80
Maileguaren amortiza.	Aitortzailea	PAGADOR	1.744,03	0,00
Maileguaren interesak	Aitortzailea	PAGADOR	403,67	0,00
Dohaintza (10%)	Aitortzailea	PAGADOR	216,00	0,00

TRIBUTAZIO MOTARIK ONURAGARRIENA

Zure familia unitateak bi modutara tributa dezake:

- * Batera: aitorten bakar batean kide guztien errentak biltzen dira.
- * Banaka: familia unitateko kide bakoitzak bere aitortpena aurkezten du.

Bi aukeren emaitza kalkulatu ondoren, zure familia unitatearentzat hobeto ateratzen den autolikidazio proposamena azaltzen dizugu: **banaka** aitortzea.

Emaitzak:

- * Batera aitortua : 5.737,09 euro ordaintzea
- * Banaka aitortua: 53,77 euro itzultzea, datu hauen arabera:
 - * NOMBRE CONYUGE ren aitorpenean 82,46 euro itzultzea
 - * NOMBRE CONTRIBUYENTE 000004 ren aitorpenean 28,69 euro ordaintzea

Hortaz, bidali dizugun proposamenarekin ados bazaude, hura onartuta zuretzat onuragarriena den tributazio mota ere onartuko duzu, hau da, banaka aitortzea.



AZALPENEA**1 - Kontu Korrontea**

Egiaztatu 1. orriaren atzealdeko lauki ilunduan ageri den kontu korrontea zurea dela eta erabilgarri dagoela. Hala ez bada, bi baldintza horiek betetzen dituen beste kontu bat adierazi beharko diguzu.

2 - Proposamenaren emaitza aldatzea

Proposamena onartzeko unean kontzeptu hauek **aldatu daitezke: etxebizitza errentan emateagatik lortutako etekinak eta kuota sindikalengatik, dohaintzengatik eta ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik** aplikatzen diren kenkariak.

3 - Tributazio mota

Familia unitatea osatzen bada, likidazio proposamena egiten da zergadunari: **onuragarriago zaion tributazio mota aplikatuta (banakakoa edo baterakoa)**. Gainera, 2.orrian, beste tributazio motak duen emaitza adierazten da.

4 - Lanaren etekinak

Jasotzen den ordainketa bakoitzeko, etekin osoa eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak hartzen dira.

Azkenik, lanaren hobaria lortzen da, baina hau aldatu egin daiteke sarreraren eta gastuen arteko diferentzia zenbatekoa den.

Diferentzia (sarrerak - gastuak)	Hobaria
< 7.500	4.650
7.500 - 15.000	4.650 - 0,22 x (Diferentzia - 7.500)
> 15.000	3.000

Lanetik ez datozen errentak konputatzen badira, eta horiek 7.500 eurotik gorakoak badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da.

Langile aktibo desgaituen kasuan, hobaria gehitu egiten da minusbaliotasun mailaren arabera:

Minusbaliotasun maila	Hobariaren gehikuntza
%33 - %64	%100
%33 - %64 eta mugikortasun murriztua	%250
> %65	%250

Hobaria aplikatzearen ondorioz ateratzen den lan etekin garbia ezin da negatiboa izan.

5 - Kapital higiezinaren etekinak (lokalak)

Errentan emandako lokal bakoitzeko, errentamenduaren zenbatekoa, OHZ eta amortizazioa eta interesak sartzen dira.

6 - Oinarri ezargarri orokorra (OEO)

Aurreko 4. eta 5. apartatuetako etekinen batura da.

7 - Oinarri likidagarri orokorra (OLO)

OLOa lortzeko, murrizpen hauek aplikatzen zaizkio **OEO**ari:

- BGAEei egindako ekarpenak. Enpresariak ekarpenak egin baditu, oinarria murrizteaz gainera, lan etekintzat hartzen dira. Murrizpenak bi muga ditu: 5.000 euro zergadunaren ekarpenetarako, eta 12.000 euro zergadunaren ekarpenak eta enpresariaren kontribuzioak batuta.

Batera aitortzen denean, oinarri ezargarria 4.176 euro murrizten da (3.628 euro, guraso bakarrek familia unitateen kasuan).

8 - Kuota orokor osoa

OLOari ondoko taula aplikatuz lortzen da:

Oinarria (muga eurotan)	Kuota osoa	Oin.aren gainera-koa (muga eurotan)	Tasa aplik.
0,00	0,00	15.390,00	%23
15.390,00	3.539,70	15.390,00	%28
30.780,00	7.848,90	15.390,00	%35
46.170,00	13.235,40	19.790,00	%40
63.960,00	21.151,40	25.410,00	%45
91.370,00	32.585,90	30.450,00	%46
121.820,00	46.592,90	55.830,00	%47
177.650,00	72.833,00	Hortik aurrera	%49

9 - Kapital higigarriaren etekinak

Besteak beste, sartzen dira: dibidenduak, kooperatiben itzulkinak eta kooperatiben aldeko ekarpenen interesak, kontuen interesak, bonoenak, bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak, eta aktibo finantzarioak eskualdatzeagatik lortutakoak.

Dibidenduak 1.500 euroko mugaraino daude salbuetsita urtean aitorten bakoitzeko. Kooperatibek ekarpenak direla-eta bazkideei ordaindutako interesei ez zaie aplikatzen salbuespen hori.

10 - Kapital higiezinaren etekinak (etxebizitzak)

BIZIGUNE edo ALOKABIDE programen bidez errentan emandako etxebizitza bakoitzeko, jasotako zenbatekoa sarrera gisa jartzen da, eta sarreraren %20ko hobaria gastu gisa.

11 - Ondare irabaziak

Inbertsio fondoetako partaidetzak eskualdatzeagatik lortutakoak.

12 - Aurrezpenaren oinarri ezargarria (AOE)

9., 10. eta 11. apartatuetako errentak batuz lortzen da.

13 - Aurrezpenaren kuota osoa

AOEari taula hau aplikatuz lortzen da:

Oinarria (muga eurotan)	Tasa aplikagarria
1.500,00raino	%21
1.500,01etik 10.000raino	%23
10.000,01etik	%25

14 - Oinarri ezargarri osoa (OEOS)

OEOSa eta **AOE**a batuz lortzen da.

15 - Kenkari orokorra

1.375 euroko kenkaria, aitorten bakoitzeko.

16 - Kenkaria ondorengo ahaideengatik

Lehenengoa.....	579
Bigarrena.....	716
Hirugarrena.....	1.210
Laugarrena.....	1.430
Bosgarrena eta hurrengoak.....	1.869 bakoitzagaik
Gehikuntza 6 urtetik beherakoa izateagatik.....	331

17 - Kenkaria aurreko ahaideengatik

Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik 277 euroko kenkaria.

18 - Kenkaria adinagatik

Kenkari hau aldatzen da adinaren, oinarri ezargarri osoaren (**OEOS**) eta tributazio motaren arabera.

Banakako tributazioan hau da zenbatekoa:

Adina	OEOS < 20.000	20.000-30.000 artekoa	> 30.000
> 65	331 Euro	331 - 0,0331 x (OEOS -20.000)	0
> 75	605 Euro	605 - 0,0605 x (OEOS -20.000)	0

Baterako tributazioan hau da zenbatekoa

Adina	OEOS < 29.000	29.000-39.000 artekoa	> 39.000
> 65	331 Euro	331 - 0,0331 x (OEOS -29.000)	0
> 75	605 Euro	605 - 0,0605 x (OEOS -29.000)	0

19 - Kenkaria desgaitua izateagatik

Desgaitasun maila	Kenkaria
% 33 - % 64	867
≥ % 65	1.224
≥ %75 eta 15-39 puntu bitartean hirugarren pertsonek laguntzagatik	1.428
≥ %75 eta ≥ 40 puntu bitartean hirugarren pertsonek laguntzagatik	2.040

20 - Kenkaria mendetasunagatik (baterazina da desgaitasunaren kenkariarekin)

Mendetasun maila	Kenkaria
Mendetasun txikia.....	1.224
Mendetasun ertaina.....	1.428
Mendetasun handia.....	2.040

21 - Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik

%15eko kenkaria, 1.500 euroko mugarekin aitorten bakoitzeko, **etxebizitza kontuetan** sartutako diru kopuruengatik eta **birgaitze lanen** zenbatekoarengatik (BEZa barne).

2012/01/01a baino lehen EROSITAKO ETXEA

%18ko kenkaria, 2.160 euroko mugarekin aitorten bakoitzeko (%23 eta 2.760 euroko muga, aitorten bakoitzeko, 35 urtetik beherakoentzat eta familia ugariengatik) **inbertsiorako maileguen** interesengatik eta amortizatutako kopuruengatik.

2012/01/01etik aurrera EROSITAKO ETXEA

%15eko kenkaria, 1.500 euroko mugarekin aitorten bakoitzeko (%20 eta 2.000 euroko muga, aitorten bakoitzeko, 35 urtetik beherakoentzat eta familia ugariengatik) **inbertsiorako maileguen** interesengatik eta amortizatutako kopuruengatik.

22 - Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik

%20ko kenkaria, 1.600 euroko mugarekin urtean, BIZIGUNE edo ALOKABIDE programen bidez ordaindutako alokairuaren gainean (35 urtetik beherakoentzat eta familia ugariengatik, kenkaria %25ekoa da, 2.000 euroko mugarekin urtean).

23 - Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik

%30eko kenkaria.

24 - Kenkaria dohaintzengatik

Dohaintzen %10 kentzen da.

25 - Lehentasunezko jardueren kenkaria

%30eko kenkaria.

26 - Kuota diferentziala

Kuota osotik kenkariak eta atxikipenak kenduz kalkulatu da zer zenbateko helbideratuko dugun zure kontuan proposamenarekin ados egonez gero (emaitza itzultzea bada, ordaindu egiten da; aldiz, emaitza ordaintzekoa bada, zenbatekoa kargatuko zaizu). Autolikidazioen emaitza itzultzekoa bada, itzulketa ez da izango sartutako atxikipen zenbatekoa baino handiago.